

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2861

AGINDUA, 2015eko ekainaren 24koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinen bidez, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak diruz laguntzeko deialdia egiten baita 2015eko ekitaldirako, apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuan aurreikusi bezala.

Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak diruz laguntzen dituen apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuaren xedea da finkatzea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiattegietan sasoiko zerbitzuak eskaintzen dituzten langileei zuzendutako ostatuak eraiki, egokitu, hobetu edo ekipatzeko laguntza araubidea.

Dekretu hau Sasoiko Langileei Arreta Emateko Plan Integrala 2004-2007 delakoa betetzeko neurri modura hartu eta argitaratu zen, beste hainbaten artean. Hura Sasoiko Lanaren Erakunde Arteko Mahaiak onetsi zuen 2004ko ekainaren 30ean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila lehendakari izanez. Bertan, helburuen artean, sasoiko langileentzako ostatu komunitarioak sortu edota mantentzeko laguntzak eta diru-laguntzak emateko aukera finkatzea jaso zen.

8. artikulua xedatzen duenez, eskabideak aurkezteko epea urtero irekiko da, desagertutako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren titularraren aginduaren bitartez (gaur egun Ingurumen, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila). Aipatutako agindu horretan hauek agertuko dira: eskabideak aurkezteko epea, laguntza guztiei zuzendutako gehieneko kopuru orokorra eta, hala badagokio, haren urte anitzeko xehetasuna, laguntzen zenbatekoa finkatzeko erabilitako irizpide objektiboen zehaztapena eta horien haztapena, eta 7. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako agirietatik aurkeztu beharrekoak finkatuko lirerateke, deialdi bakoitzean hautatzen diren irizpide objektiboak gorabehera.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2015eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen helburua da 2015eko ekitaldirako nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak diruz laguntzen dituen apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuan aurreikusitako laguntza deialdia egitea.

Bigarrena.– Eskabideak eta erantsitako agiriak aurkezteko epea.

1.– Apirilaren 17ko 62/2014 Dekretuak ezarritako laguntza deialdian sartzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da 2015eko ekitaldian, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneko 09:00etan hasi eta azken eguneko 15:00ak arte. Azken eguna ostirala izan ezker, 12:00etan bukatuko da aurkezteko epea.

2.– Eskabide-orria eskura dago web-gune honetan: www.nasdap.ejgv.euskadi.net

3.– Eskabideak apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz aurkeztu beharko dira, agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen NANaren fotokopia, pertsona fisikoa bada.
- b) NANaren fotokopia eta legezko ordezkariaren ahalmentze-eskritura, pertsona juridikoa bada, eta entitateko estatutuen eta horiek dagokien erregistroan inskribatu izanaren fotokopia.
- c) Egingo den inbertsioaren edo gastuaren memoria deskriptiboa, non jasoko baitira burutzeko, kokatzeko eta finantzatzeko epeen aurreikuspena, baita behar bezala zehaztutako aurrekontua ere.
- d) Hirugarrenen alta.
- e) Obra-proiektua, lizentzia eta udalaren baimena, beharrezkoa bada.
- f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duen ziurtagiria.
- g) Behar izanez gero, jatorriko kontratazio programaren barruan dagoela aditzera ematen duen «konpromisoa»ren kopia.
- h) Errenta-aitorpenaren kopia eta Gizarte Segurantzako nekazaritza-erregimeneko inskripzioaren kopia.
- i) Zinpeko aitortpena, aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla aitortuz, bai eta beste hauek ere aitortuz: ez diotela eragiten diru-laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dioten zigor- edo administrazio-zehapenek; ez duela helburu horretarako ezgaitzen duen ezelango lege debekurik; sexuagatiko bereizkeria dela-eta zigor administratiborik edo penalik ez zaiola ezarri, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera; eta, Laneko Segurtasun eta Higienari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea ez betetzearen ondorioz, ez diola eragiten inolako zehapen prozedurak. Azkenik, aitormena egin beharko du, azken bi ekitaldi fiskaletan eta aurtengo ekitaldi fiskalean zehar jasotako «mínimis laguntzak» direla-eta.

Hirugarrena.– Diru-laguntzen zenbateko osoa.

1.– Agindu honen ondotik emango diren laguntzen zenbateko osoa Euskal Autonomia Erkidegoko 2015eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretatik etorriko da, eta ez du 70.000 euro gaindituko, betiere, hargatik eragotzi gabe, indarreko legediari jarraikiz aurrekontu aldarazpenak onesten diren kasuan eguneratzeak egotea.

2.– Gauzak horrela, aldarazpen horiek onestetik etorritako aurrekontu esleipena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburordearen ebazpenaren bitartez. Hori laguntzen ebazpena eman baino lehen egitekoa izango da.

Laugarrena.– Laguntzen zenbatekoa finkatzeko eta horiek haztatzeko irizpide objektiboen zehaztapena.

2015eko ekitaldirako laguntzak zehazteko helburu objektiboak eta horien haztapena hauek izango dira:

- Ostalua kokatzeko zona, zenbait zonatan aterpeak behar izateagatik: 5 puntu.
- Jatorrian kontratatutako programari atxikita egotea: 10 puntu.
- Ostaturako jarritako plaza kopurua: 5 puntu.
- Kostuaren eta plazen arteko erlazio egokiena: 5 puntu.

– Jarduera Nagusia nekazariarena izatea: 10 puntu.

Bosgarrena.– Burutzapenerako epea.

2015eko ekitaldirako, apirilaren 17ko 62/2007 Dekretuko 2. artikulua aipatutako diruz lagun daitezkeen jarduerak burutzeko epea ezin izango da izan 2015eko abenduaren 31tik haratagokoa.

Seigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaiokete interesdunek Ekonomia-ren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta biharamunean hasiko da epea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 24a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.